


aikor!

txorierriko aldizkaria



**Palestina,
makurtzen
ez den
herria**



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Juantxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Jasone Astola, Iñaki Berazategi, Izaskun Uriarte, Goizeder Uria eta Olatz Unamunzaga, Atotz Goikoetxea, Xabier Aburruzaga eta Gaizka Benguria

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaurerilza



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



24 Urakanak harrapatuak



14 Lore-koroak



26 Derioko Aeromodelismo Taldea



11 Evaristo

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak
11Gurean izan da... Evaristo **12**Gazteen txokoa
13Gaztea eta... Ibai Bergoña **14**Lore-koroak **20**Euskara
Eguna **22**Artxandako Golf Kluba **24**Urakanak harrapa-
tuak **26**Derioko aeromodelismo taldea **28**Osasuna
29Teknologia **30**Musika **31**Txorierri ezagutu
32Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

Aldatzeko prest?



JASONE ASTOLA
(Irakaslea)

1 998ko apirilean, Kolonbiara lehenengoz joan nintzenean, inmigrazioa geldiezina izango zela ulertzen hasi nintzen. Pobretasuna eta miseria gatz dira ulertzen gertu izan ez bazara. Informazio zabala izan arren, ezin dugu asmatu ere egin pobrezia zer den. Argazkiak ikusi, dokumentalak, ONG-GKEen hitzaldietara joan arren, ezin dugu asmatu ere egin pobrezia zer den.

Pobreziaren osagaietariko bat, zalantza barik gosea da, baina ez bakarra. Biolentziak lagundu ohi dio. Desesperazioak ere bai. Baina, batez ere, heriotzak. Heriotza, herrialde hauetan, beste auzokide bat da. Noizbehinka zure etxetik pasatzen den auzokidea. Horregatik, kosta ahala kosta nahi dute geurera etorri. Gibraltarreko itsasarte pateretan zeharkatuko dute, beharrezkoa bada, uger eginez. Hiru metroko hesiak eskalatuko dituzte; baita seikoak ere, beharrezkoa bada. Edozein prezio ordainduta etorriko dira Heriotzak etxean edo bidetik bisita egitea berdin die. Ez dute bizitza besterik jokoan. Hain sinple, hain argi.

Ez litzateke, bada, eraginkorragoa izango jatorrizko herrietan laguntzea? Han duten bizimodua hobetzeko lan egiten ez bada, inmigrazioa geldiezi-

na da. Pertsonak jaioterria maite dugu, hala ere, denok dugu herriz aldatzeko eskubidea, norberaren borondatez denean, baina negargarria da goseak eta beldurrak bultzatuta ihes egin behar izatea. Alde egiten duten gehienek ez lukete alde egingo, behartuta egon ezean. Sorterrietan ekonomikoki eta sozialki garatu daitezen aukera eman behar diegu. Etorritakoak, gutxi badira, duintasunez har daitezke eta erraztasunez integra daitezke. Etorri direnei lana eskaintzerik ez denean, pobrezia, inpotentzia eta esperantzarik eza agertzen dira. Frantziako istiluek hori erakutsi dute. Liskarrak ez dira Etoo edo Ronaldo bezalako etorkinen eskutik izan, gizarte honetan lekurik aurkitu ez duten pertsonen eskutik baino

“Pobreziaren osagaietariko bat gosea da. Biolentziak eta desesperazioak lagundu ohi diote, baina, batez ere, heriotzak”

Argi da, pobreziari aurre egiteko, besteok, duguna banandu egin behar dugula. Prest gara? Gure gobernuari Hirugarren Munduari benetan laguntzeko erabakiak hartzea eskatuko diegu? Multinazional erraldoiek pobreen lepotik egiten ari diren irabaziei amaiera emateko eskatuko diegu? 0,7ri baietz esango diogu? Beste batzuk duintasunez bizi izan daitezten, gu xumeago bizitzeko prest gaude?

Gaur heriotza milaka pobreren etxeetatik pasatu da. Bihar ere pasatuko da. Eta etzi ere bai... Zenbat denbora beharko zenuke zuk auzoz aldatzeko?

FJL



IÑAKI BERAZATEGI
(Kazetaria)

B adira uste dutenak —eta ni neu, tartean— gure alderdi honetan gaztelaraz egin edo entzuten den irratia, batik bat “radio generalista” deitzen den hori, gaixo samar dagoela eta entzefalograma laua izateko joera duela. Halako abstrakzio bat egiten badugu irratietako branka-irudietatik (Del Olmo, Herrera, Gabilondo herenegun arte...) eta marka erregistratuetatik (SER, Onda Cero eta gainerakoak), irratia kate baten programazioak eta edukiek antz handia dute gainerako guztiekin, hala nola Mac Donalds-eko hanburgesek antza duten Burger King-ekoekin.

Hainbestekoa da irratiko *fast fooda*, hain paketatuta dago, hain ondo errotulaturik, hain da aspergarri, ezen, beste batzuei bezala, eskertzekoa iruditzen zaidan Espainiako irratiko *superfrikien* eguneko menua, kolesterol eta triglizeridoz ondo hornitua: Federico Jiménez Losantos-en menuaz ari naiz, noski.

Gizon honek, atzo estalinista eta gaur eskuin muturrekoa denak, espainiar apezpikuen irratitik eskaintzen digu, astelehenetik ostirala bitarte, goizeko bere diskurtso apokaliptikoa, alegia, saski-naski gogor bat, larguro onduta gezurrekin, erdi-gezurrekin, lotsagarritzko omisioekin, makulu-hitz errepika-korrekin eta gona-mahaiko erudizioarekin; horren guztiaren ingurumarian bildu ditu kobazulo karpeto-betonikoan aurki daitezkeen elementurik ospindue-nak.

PPkoek akabatzen dutenean (izan ere, *friki* hau, azkenean, PPrentzat baita arriskutsuagoa, PSOEren-tzat baino), terueldar gogor hau amai daiteke, erakusgai, orain urte batzuk arte Banyolasko beltza jarri zuten toki berean. Hori guztia, pentsamendurik atzerakoiaren arketipotzat aupatu zuten uhin hertzia-rrerako harengai zor zaien laudorioa ematearren.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Oxangoitiarrak mendira, Gaizkaren omenez

Urriaren 11n, hogei bat lezamar –Gaizkaren etxekoak tarteko zirala–, Huescarantz abiatu ginan, oraintsu istripuz hildako gaztea mendian omentzeko asmoz.

Gaizka oxangoitiar peto-petoa genduan aspalditik: beti prest laguntzeko, ekimenetan parte hartzeko... eta irribarretsu, ganera. Basakatua lez irudikatu dau norbaitek: Naturaren deia entzun, eta bajoian batzuetan itsasaldera, eta beste batzuetan, mendira, beti be Ama Naturagaz dantza egiteko prest.

Lehenengo hiru milakoa gugaz batera egin eban; Infernuetako gailurrak eta Gamo Negroko harkaitz zuriak zapaldu genduzan. Aurten Europako Pikuetara joateko irrikan egoen, baina ezin izan zan joan, udan sorosle lan egin ebalako hondartzan.

–“Pozik nago lanagaz, baina ez dot mendira joateko gogoa galdu. Zergatik ez goaz barriz udazkenean mendira?”

–“Beno, agian. Urrun ez bada... Zer deritxozu Bisaurinera?”

–“Primeran, hori eginda dago. Ez egin hutsik!”

Eta jakina, oxangoitiarrok ez geuntsan hutsik egin, eta Bisaurinera joan ginan. Baina Pirinioetara ez ginan esku hutsik ailegatu: mendiaren eta itsasoaren arteko besarkada irudikatu guran, Lezamako zuhaitzek emondako orriak, Bizkaiko itsasoari ostutako ura eta Sopolako hondartzako harea eroan genduzan, Pirinio-

etako lur, harkaitz eta urakaz bat egin daien.

Urriaren 12an, hiru ekitaldi egin genduzan Gaizkaren omenez: Bisaurineko tontorrean, goizean, Plana Mistresan, eta Lizara aterpeko trikuharriaren ondoan. Bertan, orriak eta harea aireratu ziran, ikurrina eta arrano beltza erabilita. Eta itsaso eta mendiko ura alkartu ziran, etxekoei eskainiz. Ekitaldiaren azalpen laburra, poesia bat, *Hegoak ebaki banizkio* abestia eta etxekoen eskerrona. Malko batzuk be isuri ziran, baina mendiko haizearen igurtziak eta inguruko lagunak berotasunak berehala sikatu zituen.

“Hemen geratuko naz, olatu berde eta mendi urdinen artean” (Gaizka).

Oxangoiti



69.950

Gabonetako loteria

Txorierriko taberna eta komertzioetan

Lagundu
aldizkariari!

Sondikako azoka, arrakastatsua



Azaroaren 13an, Sondikako Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintzako IX. Azoka egin zen eta milaka lagun izan ziren bertan, eguraldiak lagundu ez arren. Produktoreak 81 izan ziren eta, Udalak adierazitakoaren arabera, pozik joan ziren, asko saldu baitzuten.

Azokak berritasun batzuk izan ditu. Esate baterako, aurten lehenengo aldiz ekarri ziren montxina eta limusin arrazako ganadua eta pertxeroi arrazako zaldiak. Euriaren ondorioz, ekitaldi batzuk ganaduentzat ezarritako tokian egin behar izan ziren. Besteak beste, bertan izan ziren umeentzako poniak eta ganadu-ferratzeak; ferratze-lanok ikustera jende asko hurbildu zen. Postu batean lehenengo labrantzako tresnak ipini ziren ikusgai, eta horra ere jende asko hurbildu zen. Ibilaldiak, Minbiziaren Aurkako Elkartek eta gobernu kanpoko erakunde batek ere parte

hartu zuten azokan.

Sondikan izan zirenek Bizkaiko txakolina eta Idiazabalgo gazta doan edateko eta jateko aukera izan zuten eta Udalak kopak jarri zituen salgai. Eskulangintza sailean Roberto Gomezek eskuratu zuen lehenengo saria, eta nekazaritza sailean Adela Andikoetxea izan zen txapelduna.



Olentzerori Gutuna lehiaketa, Lagatzuren eskutik

Zamudioko Lagatzu Euskera Alkarteak VII. Olentzerori Gutuna Lehiaketa antolatu du. Lehiaketan Zamudioko 12 urtera arteko umeek har dezakete parte eta lanak hurrengo helbide honetara bidaliko dira: Lagatzu Euskera Alkartea, Aresti 2, 48170 Zamudio. Sari banaketa bertako gabonetako haurparkean egingo da abenduaren 30ean. Elvi sabeliztunak ere saioa eskainiko du egun horretan.

Derioztarren euskara liburua aurkeztuko dute

Abenduaren 16an, arratsaldeko 7etan, *Derioztarren euskara* liburua aurkeztuko dute Derioko Larrabarri baserrian. Liburua Tximintx Euskara Elkartek argitaratu du, bertako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Albiaberri enpresak lagunduta.

Iñaki Gamindek eta beste bost ikerlarik hainbat derioztar elkarriketatu eta Derioko euskalkiak batu dituzte liburu horretan. Ikerlarien artean, Txorierriko hiru neska –Oihana Astobieta, Ziortza Sanz eta Atotz Goikoetxea– izan direla aipatzekoa da.

Liburua 15 eurotan salduko dute Durangoko Azokan eta Tximintx elkarteetan. Bazkideek 12 euro ordainduko dute.

Euskara Eguna ospatzeko ekitaldia, Zamudion

Abenduaren 3an Euskara Nazioarteko Eguna izango da eta Zamudioko Lagatzu Euskera Alkarteak umeei zuzendutako ekitaldi bat antolatu du egun hori ospatzeko. Korri, Xalto eta Brinko pailazoek saioa eskainiko dute Dorretxean, eguerdiko 12etan.

Euskal Linge etxeko arropa-bilduma, Derion

Duela urte batzuk Nafarroako enpresa batek Euskal Linge etxeko arropa-bilduma ateratu zuen merkatura. Etxeko arropa-bilduma hori Iparraldean zabaldu zen hasiera batean, baina Euskal Herriko beste herrialde batzuetan ere jarri dute salgai.

Euskal Linge bilduma euskal ohituretan, kulturetan, festetan eta paisaietan inspiratuta dago. Eskuoihalek, amantalek, mahai-zapie, bainu-soinekoak eta sukalde-zapie osatzen dute bilduma eta horiek guztiak Derioko Jostunak dendan aurki daitezke. Bertara bildumako lau eredu ezberdin ekarri dituzte: Eguzki Loreak, Tradizioa, Joaldun eta Sokoa. Etxeko-arropa egiteko kotoia erabili dute. Informazio gehiago Jostunak dendan (Ganburu 5, lonja, Derio. Tf. 944064984).



Eskubide zibil eta politikoen aldeko ekimena, Zamudion

Azaroaren 26an eskubide zibil eta politikoen defentsaren aldeko ekimena egingo dute Zamudion. Trikipoteoa, herri bazkaria eta bertso saioa izango dira bertan, besteak beste. Horrezaz gainera, 18/98 sumarioaren barruan dauden epaiketen berri emango da.

Duela hilabete batzuk, Zamudioko Ibon Meñika sumario horren barruan epaitu eta 2 urte eta 8 hilabeteko espetxeratzeko zigorra ezarri zioten. Gazteak prozesuko kostuak ordaindu beharko ditu eta egun horretan batzen den dirua kostu horiek ordaintzen laguntzeko erabiliko da.

Gabonetako postalen lehiaketa Sondikan

Sondikako Udalak Gabonetako postalen lehiaketa antolatu du. Lehiaketak 14. edizioa beteko du aurten eta nahi duen guztiak parte har dezake bertan. Postalak 16 x 25 zentimetrokoak edo txikiagoak izan beharko dira eta egileek askatasuna edukiko dute koloreak zein lan-kopurua aukeratzeko orduan. Lanak Sondikako Udaletxean jasoko dira eta horiek aurkezteko epea abenduaren 9an, 14:00ean, amaituko da.

Sari-banaketa abenduaren 18an izango da liburutegian eta txapelketan parte hartutako postal guztien erakusketa egingo dute bertako erakusketa aretoan, abenduaren 19tik urtarrilaren 13ra bitartean.

Beste alde batetik, Sondikako Udalak urtero postal bat bidaltzen die herritarrei Gabonak zoriontzeko. Postal hori lehiaketan aurkeztutako guztien aretan aukeratzeko dute eta aurten Nerea Jauregi sondikarraren lana erabiliko da horretarako. Neskak bigarren saria jaso zuen iaz hirugarren kategorian. Aurreko txapelketan 800 lagun baino gehiagok hartu zuten parte.



Gabonetako postalak, salgai Txorierrin.– Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE) Gabonetako postalak jarri ditu salgai. Postalok ondo-

rengo toki hauetan eros daitezke: Larrabetzuko estankoa, Lezamako Josunen denda eta Gotzonen denda, Zamudioko Zamudio liburdenda, Derioko Arinka liburdenda, Sondikako Aingeru denda eta Loiuko estankoa. Era berean, postal horiek 94 455 50 58 telefono zenbakira deituta eskura daitezke.

Bildutako dirua GKEk Kolonbiako Pereira herrian duten proiektuak finantzatzeko erabiliko da. “Iaz 2.000 euro batu genuen. Ea aurten diru gehiago lortzen den!”, esan digute. Urte hasieran bertan erizaindegia jartzeko asmoa du GKEk.

Madariaga sondikoztarrak irabazi du Bizkaiko Odoloste Txapelketa

Azaroaren 11n, Bizkaiko Odolosten XI. Txapelketa egin zen Bilboko La Granja jatetxean, eta lehenengo saria Victor Madariagak eskuratu zuen. Madariaga Loiuko Zamarripa baserrikoa da eta Sondikan du harategia. “Txapelketa birritan irabazi dut eta egia da sariek ilusioa egiten dizutela. Hala ere, bederatzi aldiz

heldu naiz finalera, eta benetan hori da poztasun handia ematen didana”, aipatu digu. Bizkaiko odolosterik onenak egiteko, sekreturik ez dagoela dio, “lehengai onak erabili eta odolosteei puntua hartu, besterik ez”. Eta horretaz asko daki berak, izan ere, harakin-beharra 15 urte zituela ikasi zuen.



Enpresa ez kutsatzaileentzako industrigunea egingo da Larrabetzun

Larrabetzuko Udalak industrigunea egiteko asmoa du Lezamarekin muga egiten duten lurretan. Industrigunea 10 hektareako eremu batean ezarriko da. Bertan enpresa ez kutsatzaileak kokatuko dira. Tomas Ordeñana alkateak adierazitakoaren arabera, proiektuak onura ekarriko dio herriari, lanpostuak sortuko baitira. “Ahaleginak egingo ditugu, herriko enpresak industrigune horretan kokatzeko. Lan-aukera ona izango da gazteentzat”.

Gazte txartela eta Logo Lehiaketa martxan jarri dira Loiun

Loiuko Udalak Gazte Plana prestatu du eta ekimen bi jarri ditu martxan: gazte txartela eta Logo Lehiaketa. Gazte txartela 14tik 27 urte arteko gazteentzat egin da; gazte txartel hori eskuratzen dutenek abantaila handiak izango dituzte Udalaren kultur ekin-tzetan.

Beste alde batetik, Logo Lehiaketa antolatatu dute herriko gazteentzat. Lanak urtarri-laren 31ra arte jasoko dira. Lehenengo saria ematen zaion logoa erabiliko da Udalak gazteei bidaltzen dizkien inprimakietan.

Inoiz baino jende gehiago Zamudioko azokan



Azaroaren 6an Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintzako XXI. Azoka izan zen eta zenbaki zehatza botatzea gatz bada ere, inoiz baino jende gehiago bildu zen bertan. Azokan Euskal Herriko 60 bat ekoizlek hartu zuten parte eta ganaduaren erakustaldia ere egin zen. Horrezaz gainera, lehengo usadioko arroparik egokienari saria eman zitzaion.

Beste alde batetik, Euskadiko Limusin Arrazako Ganaduaren XIII. Txapelketa egin zen aurreko egunean. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko 107 behik eta zezenek parte hartu zuten txapelketa horretan. Zallako abeltzain batek abeletxe-



rik onenarentzako saria jaso zuen, baita zezenik onenarentzako saria ere. Behien kategorian Arabako abeltzainek irabazi zuten.

Zaharrentzako ikastaroak, Derion

Derioko Udalak ikastaro bi antolatu ditu zaharrentzat abenduan. Ikastarook abenduan egingo dira. Ikastaro bat mugimendu bigunei buruzkoa izango da eta artritisa eta artrosia hobetzea izango da haren helburua; ikastaro hori martitzenetan emango da, 17:00etatik 18:30era. Beste ikastaroa oroimena sendotzeko ikastaroa izango da eta eguenetan emango da, arrastiz. Derioko Nagusien Etxean eman behar da izena.

Larrabetzuko pilotalekua, obretan

Larrabetzuko Udalak pilotalekua berriztatze lanei ekin die. Sarrera bi, larrialdietako irteera bat, leiho eta aldagela berriak eta 500 eserleku jarriko dira, besteak beste. Hainbat kirol ekintza eta ikastaro egiteko lekua ere prestatuko da bertan. Larrabetzuko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k 400.000 euro inbertitu dituzte proiektuan. Berriztatze lanak 2006ko urtarrilaren erdi aldera bukatuta egongo direla uste dute.

Magalarte eta Agirre, Gernikako azokan txapeldun

Urriko azken astelehenean azoka eguna izan zen Gernikan. Maximiano Agirre lezamarrak lehenengo saria irabazi zuen txakolin gorriaren nahiz beltzaren kategorian. Zurian, berriz, Iñaki Aretxabaletaren Magalarte txakolina izan zen irabazlea.

‘Lezama gure herria: gida didaktikoa’ argitaratu dute



Azaroaren 17an, *Lezama gure herria: gida didaktikoa* eta horren CDA aurkeztu ziren Lezamako kultur aretoan. Lana Iñaki Gaminde eta Begoña Bilbao ikerlariak egin dute eta Zorritzetan euskara elkarteak eman du argitara, Mendebalde kultura elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lezamako Udalak lagunduta.

Gida didaktikoa Lezamako toponimia liburuaren jarraipena da. Gida didaktikoren helburua da liburu hartan bildutako datuak eta toki-izenak ezagutaraztea, galdu ez daitezkeen. Horretarako, ariketa batzuk proposatzen dira, toponimoak modu errazean ikasteko. Liburua eta CDA 15 eurotan jarri dituzte salgai.

Beste alde batetik, Zorritzetan elkar-teak beste proiektu batzuk egiteko asmoa du; haien artean, auzoen eta kaleen ize-nak ipini eta errotulaztea.

Ateak zabaltzeko eguna, Teknologia-parkean

Azaroaren 13an, Euskal Autonomia Erkidego-ko teknologia-parkeetan jendeari ateak zabaltzeko eguna izan zen eta Zamudioko parkeak 3.000 bisita baino gehiago izan zituen. Egun horren helburua izaten da jendeari erakustea zer lan egiten den teknologia-parkeetan.

Euskararen Telefonoaren web-orria, martxan

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Euskararen Telefonoaren web-orria martxan jarri du www.euskararentelefonoa.com helbidean. Hizkuntza-eskubideen gaineko kexak, txalotzeak, iradokizunak edo galderak bideratzeko bitartekoak aurki daitezke bertan.



Lezaman 250 pertsona bildu ziren Lurralde Plan Partzialaren aurka

Lezama Bizirik koordinakundeak jaialdia antolatu zuen, azaroaren 20an, Bilboko Metropolitiko Lurralde Plan Partziala salatzeko. Jaialdian 250 lagun inguruk hartu zuten parte, eta koordinakundeak adierazi du deialdiak arrakasta handia izan duela.

Aretxalde auzotik Ugarterainoko ibilaldia egin ondoren, idatzi bat irakurri zuten herriko plazan. Handik manifestazioa egin zuten Lezamako Torrerraino, eta han erromeria egin zuten.



Evaristo, Gatillazo taldeko kantaria

“Faxismoak aurrera jarraitzen du Estatuan”

La Polla taldea desegin ondoren, Gatillazo proiektu berriarekin etorri zaigu Evaristo. Zamudioko jaietan, punk gogor eta zorrotzena aurkeztu zigun.

‘Gatillazoa’ zakilak hartutako sustoa omen da...

Bada, esanahietariko bat da... Guk hartu genuen, norbait haserretu eta “Bale, ba gatillazoa eta ostiak egitera” esan zuelako, baina ez lotura horregatik. Kontua oso “inteligentea” gelditu zen, gero.

Batzuek La Pollaren jarraipena dela diote. Etapa berritzat jotzen duzu zuk?

Beste rollo bat dela uste dut. Gatillazo proiektuarekin hasi ginenean, La Pollaren azken diskoa kaleratu berria genuen —gutariko hiruk grabatua—, eta jo barik geldituko zen... Eta orain La Pollaren kanta batzuk jotzen ditugu, Gatillazok disko bakarra duelako eta disko horrek 40 minutuko iraupena duelako... Oso festibal laburra izango zen, bestela.

beharbada, ez gara egokienak, abestiok txarrak edo onak diren esateko.

Diskoa aurkeztu zenutenean, gauza berri-rik ez itzaroteko esan zenuten, mundua ez zegoela esperimenduak egiteko...

Beno, “mundua” esan beharrean, “gu” esan behar izan genuen beharbada. Zein musika gustatu eta huraxe egiten dugu; baina musika hori oso berria ez da... Eta mundua? Munduak ez du hobera egiten.

Dena dela, disko horretan abesti bi a capella kantatu dituzu eta Betagarri taldeko batzuek kolaborazioa egin dute beste kantu batean...

Bai, baina txaranga rocka baino zaharragoa da, ezta?

Bale, baina berrikuntza ez bada; esperi-mentazio txikia izan daiteke...

“Publikoa La Polla entzuteko asmoarekin etortzen bada

kontzertuetara, gero eta gutxiago etorriko da, Gatillazo izan nahi dugulako, eta kito”

abestiak jo eta kito.

Zeintzuk dira taldearen helburuak epe laburrean eta epe luzean?

Bederatzi abesti berri egin ditugu eta haie-tako hiruri letra jarri diegu. Hala ere, inore- ez dugu kontraturik egin, hain egune-ko bigarren diskoa ateratzeko. Argi kagunean kaleratuko dugu.

La Polla punk mugimenduko erreferen- zian da 25 urtean. Hala ere, batzuek ak eta urteak daramatzate punka a dagoela esaten, oso punk komer- a egiten dela, punk ona Sex Pistols, Clash eta horien moduko talde bana- atzuek baino ez zutela egiten...

hori esaten dutenak ez dira izango dis- xe txikiak kritikatzan dituztenak? Izan aipatutako taldeak multinazionalak zatu zituzten. Komertziala salerosi egi- duena da. Lan bat autoproduzitu ahal a, merkeago atera ahal duzu, baina sal- in jarri eta horren truke dirua ematen zute, bada hori salerostea da. Komer- garestia goa zein merkeagoa izan daite- aina, izan, salerostea da.

azkena, duela gutxi SA taldearen dis- k kendu zituzten El Corte Inglesen, Euskal Herriko beste talde batzuek n kontrako kanpaina jaso dute, zer satzen duzu horren inguruan?


smoak aurrera jarraitzen duela Esta- . Hau da guztia?

da, ez dit minik egin.



Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Praktika solidarioak



Unibertsitateko ikaslea bazara, praktikak derrigorrean egin behar badituzu eta non egitea pentsatzen bazabiltza, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHUk) eta garapenerako lankidetzarako erakundeek (GGKEek) oso alternatiba erakargarria eskaintzen dizute: praktika horiek garapen-bidean dauden herrialdeetan egitea.

EHUk Garapenerako Lankidetzaren Proiektuetako Praktika Programa 2003-2004 ikasturtean jarri zuen martxan. Programa hori nahitaezko praktikak (Practicum) egin behar dituzten ikasleei zuzenduta dago eta GGKEek garapen-bidean dauden herrialdeetan dauzkaten proiektuetan aritzeko aukera ematen die. Era berean, munduan izaten diren aldeez jabetuta dauden profesionalak sortzea du helburu.

Irakasleen Unibertsitate Eskolako, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko, Psikologia Fakultateko eta Gizarte Langintzako Eskolako ikasleek parte har dezakete programan; hala ere, beste ikastegietako eta titulaziodun ikasleentzat ere zabalik dago, hurrengo baldintzak bete-

tzen badituzte: titulazioak Practicum egitea eskatzea, ikastegiak programan parte hartzeko idatzizko eskaria egitea eta agintari akademikoek eskaria onartzea. Ikasle guztiak karrerako bigarren mailan edo goragokoan matrikulatuta izan beharko dira.

Behin programan onartuta, ikaslea hiru hilabete hainbat zereginetan arituko da GGKEekin batera, eta tarte horren ostean erakundeak ebaluatuko du, bere proiektuaren batean praktikak egiteko egokia den ala ez aztertzeko. Egokitzen diren ikasleak diru laguntza lortzeko aukera izango dute. Programak 750 euroko 20 dirulaguntza izan zituen pasa den ikasturtean, osasun aseguruia eta bidaiaren gastuen parte bat ordaintzeko.

GGKE parte-hartzaileak

–**Eki-Haizea:** Oscar González

Telefonoa: 945 176 703
ekihaizea@hotmail.com

–**FISC:** Arantza Odriozola

Telefonoa: 943 451 094
fisc-ongd@fisc-ongd.org

–**Haurralde Fundazioa:** Patricia Ponce

Telefonoa: 943 462 290
haurralde@euskalnet.net

–**Interred-Euskalherria:** M^a Mercedes Digón

Telefonoa: 943 279 044
interred@euskalnet.net

–**Leonekin:** Nati Ovelleiro

Telefonoa: 94 600 17 87
conleon@eurosur.org

–**Mugarik Gabe:** Carlos Vázquez

Telefonoa: 94 415 43 07
mugarik@mail.com

–**PTM-Mundubat:** Ana Isabel Morales eta Gorka Ramírez

Telefonoa: 94 416 23 25
bilbao@ptmhurugarren.org

–**Solidaridad Educación y Desarrollo (SED):** Mari Cruz Martín

Telefonoa: 94 681 00 58-20 06 38
sednorte@maristak.com



Argibide gehiago:
web orrialdean **lgvocdes@lg.ehu.es**
helbidean

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko
telefono zenbakia:
94 601 20 67

Ibai Begoña, eskubaloiz jokalaria

“Asobalen berriro jokatu nahiko nuke”

Ibai Begoña 15 zituela hasi zen eskubaloian jokatzeko eta oraindik ere horretan jarraitzen du. Loizutarrak lau urte daramatza Barakaldo UPVn, eta aurten mailaz igo-tzea lortu nahi du.

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Ondo hasi da denboraldia, ezta?

Bai, baina oraindik asko falta da liga bukatzeko. Hasiera honetan jendea ondo moldatzen ari da eta bakoitzak duen guztia ematen du, bai atzerritarrek, bai jokari berriek... Topera joaten gara partida guztietan, irabazi zein galdu. Horixe da gehien gustatzen zaidana.

Igoera helburutzat duzue?

Bai, izan ere, hirugarren postuan geratzearrekin konformatzen bazara, azkenean seigarrenean amaituko duzu liga. Asmo handiak izan behar ditugu ahalik eta gorenaren bukatu ahal izateko. Gainera, Barakaldoren ibilbideak berak behartzen gaitu.

Eta iaz, zergatik ez zineten igo?

Hain erraza ez delako. Ohorezko B maila gero eta zailagoa da: Asobal ligatik (Lehenengo mailan) kalitate handiko jokariak etortzen ari dira, enpresa batzuk dirua sartzen ari dira... Lehen talde on bi baino ez ziren; orain, ordea, badira askoz gehiago. Horretaz aparte, oso erregularra izan behar da. Asobalen geratzeko akatsak izan ditza-kezu, hau da, partida batzuk galtzeko aukera dago, baina igoera lortzeko ia partida guztiak irabazi behar dira.

Eta zuk zeuk zein helburu duzu? Badu ametsen bat eskubaloian?

Epe motzean garrantzitsuen kontzentratuta jokatzeko da eta egin ahal duzun guztia egitea. Epe laburrean, igoera du- gu helburu, noski. Ametsari dagokionez, esango nuke Asobalean berriro jokatu nahi-ko nukeela. Lortzen badugu, jende gehiago etorriko da par- tidak ikustera.

Zein da gehien gustatzen zai- zun jokalaria?

Normalean jokariak elkar- rrizketetan gutxi aipatzen ba- dute ere, Navrov errusiarra e- sango nuke. Erdiko jokalaria zen

Fitxa pertsonala

–**Izena:** Ibai Begoña Fernandez

–**Jaiterrria:** Loiu

–**Jaiotze-data:** 1978-05-23

–**Pisua:** 85 kilo

–**Altuera:** 1,90 metro

–**Lana:** trokelgintzan.

–**Taldeak:** Urdaneta eta Barakal- do UPV (2001-...)

–**Zaletasunak:** Ehiza e- ta musika jotzea.



eta duela hamar urte jokatzeko zuen.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Esaten da ez dudala oso ondo jaurtitzen, baina zuzentzaile ona naizela, hau da, pasatzeko gaitasun handia dudala eta jokoaren erritmoak menperatzen ditudala. **Juan Dominguez entrenatzailea lehen jokalaria zen eta zurekin jokatu zuen. Ez zaizu arraro egiten orain entrenatzaile izatea?**

Bai, batez ere, lehenengo urtean. Kirol are- totik kanpo, oso alaia eta jatorra da, baina entrenatzaile aritzen denean, oso serioa izaten da.

Nola hasi zinen eskubaloian jokatzeko?

Hamabost urte neuzkala, futboleko joko- tzeari utzi eta eskubaloian hasi nintzen, beharbada anaiak eta aitak ere kirol horre- tan jokatzeko zutelako. Orduan, Urdaneta ikastetxeko taldearekin aritu nintzen eta 2001ean Barakaldok fitxatu ninduen.

Nolako ibilbidea izan duzu lau urte honetan Barakaldon?

Lehenengo urtean lauzpabost partida baino ez nituen jokatu; bigarrenean, eskuko hezur batzuk apurtu zitzaiz- kidan eta horren ondorioz ezin izan nuen jokatu. Urte horretan maila galdu genuen. Handik aurrera, gero eta gehiago jokatu dut.

Ez zara profesionala, baina profesio- nala izatea gustatuko litzaizuke?

Bai, noski, baina badakit oso zaila dena. Ez da hainbeste irabazten, eta oso ona izan beharko nuke. Eskuba- loia ez da futbol bezalakoa, tamalez.

Gogorra da egunero entrenatzea eta aldi berean lan egitea?

Beno, bai. Iaz ez nuen lanik egiten, baina aurten bai. Orain eskubaloia

“Oso polita izan zen euskal selekzioarekin jokatzeko. Ea aurten ere deitzen didaten”

lanetik ihes egiteko era bat da.

Urte bateko kontratua sinatu duzu.

Presiorik sentitzen duzu horregatik?

Lasai nago. Beldurra diot jokatu ez eta neure maila erakutsi ezin izateari. Beste alde batetik, kontratua laburra izateak nolabait motibatzen nau jokatzeko.

Euskal selekzioarekin ere aritu zara. Zer sentitu zenuen?

Oso polita izan zen. Lehengo abenduan Lasesarren jokatu genuen Errusiaren kontra eta 3.000 ikusle izan ziren bertan. Galdu arren ere, oso partida estua izan zen. Euskadirekin jokatzeko gogo handia nuen eta azkenean jokatu ahal izan dut. Ea aurten ere deitzen didaten!

Santuentzako loreak

Domu Santuen Egunean lorez jantzi ziran Euskal Herriko hilerriak. Baina koroa eta lore-zentro horreen guztien artean, baegozan koroa batzuk bereziak ziranak: kurkubiek eta krisantemoek osatuta, antxinako erara eginda, oso gitxik dakien moduan apainduta. Zamudioko Olarea baserriko Rosi Llonak eta Agustin Landetak urteak eta urteak daroez halako artisau-lanak egiten. Aurtengoa azken aldia izan da, agian.



Olarean hogeit hamar inguru egin dabez aurtan

Zein motatako koroak egiten dozuez?

Koroak kurkubi (cresta de gallo) hutsak edo krisantemo hutsak erabilia egiten doguz, baita lore bi horreek konbinatuta be. Koroa mota bi dagoz: altuak eta baxuak. Koroa baxuetan, loreak zuzenean lotuten dira uztaira, kordel baten bidez; koroa altuak egiteko, barriz, kurkubia palu batera lotu eta palu hori uztaiari sartuten da.

Eta lore horreek zainketa berezirik behar dabe?

Behar honetan, danak dauka bere berezitasuna; halanda be, landaketea nahiko normala da. Krisantemoak apiril-maiatzetan landatzen dira. Lore horreei kimuak ateratzen jakez sustraitik eta kontu handiz kendu behar dira, kimu horreek hurrengo urteko loreak izango diralako. Kurkubiak maiatz-ekainean landatzen doguz. Kurkubiek hazia dabe; haziak bildu eta hurrengo urtean landatzen dira, lore barriak izateko. Lore mota biok urrian

batzen dira.

Kurkubiakaz zuk, Rosi, lan egiten duzu; lan gogorra eta zaila, ezta?

Koroa altuak egiteko, kurkubia alantze batez lotu behar da palura eta esku gogorak euki behar dira, alantzeak ziztatu egiten daualako. Krisantemoakaz lan egitea askoz errazagoa da, lehen esan dogun moduan uztaira zuzenean lotzen diralako. Baina aspaldian kurkubien modura be egiten ziran.

Zenbat denbora emoten dozue koroa bat egiten?

Koroaren tamaina eta konposizioaren arabera. Kalkuluak egin doguz eta prozesu osoa kontuan hartuta –palua zorrotzu, alantzea ipini, lorea palura lotu..., lau ordu emoten doguz, gitxi gorabehera. Koroa bakotzak 160 bat kurkubi euki leikez... Lan handia da, artisau-lana.

“Prozesu osoa kontuan hartuta, lau ordu emoten dira kurkubiez osatutako koroak egiteko.

Krisantemoakaz ordu bete emoten dogu”

Krisantemo hutsez osatutako koroak egiten ordu bete emongo dogu.

Eta zenbat egin dozuez aurten?

Hogei koroa inguru. Lehen Bilboko Plaza Barrian salduten genduzan, baina orain enkarguz egiten doguz. Gaur egun jendeak ez dau halako koroarik erosten; beste mota bateko loreak nahiago dabez: krabelinak edota lore arruntagoak. Eta beste alde batetik, Domu Santu Egunean hilerrietara loreak eroateko ohitura ez da atxinakoa, behera egin dau.

Entzun dogu datorren urtean ez dozuela halako koroarik egingo...

Ia ziurrena da. Baserrian bilakaerea izan dogu: hasiera baten baserriko lanak egiten genduzan eta lore-sasoia estratzat genduan. Baina loradendea jarri eta loreakaz baino ez gara ibiltzen gaur egun. Sasoi hau estra izatea amaitu da guretzat; “koma” bihurtu da, lan gehiago. Hau da, koroak egiten doguz, beti egin doguzalako eta bezeroakazko konpromisoa dogulako, baina ez diru-iturria dalako.



Koroak kurkubi hutsak edo krisantemo hutsak erabiltzen egiten dira, baita lore bi horreek konbinatuta be

“Koroa bakotxak balio dauana baino lau bider gehiago balio beharko leuke errentagarria izateko”

Koroa mota honeek egiteak lan handia emoten deusku eta uste baino zailagoa da, ez dau edonork egiten... Loreak landatzen doguzanetik koroak prestatu diran arte

Pausoz pauso

Kurkubiak eta krisantemoak urrian batuten dira. Koroak egin baino lehen, material guztia –uztaiak, paluak, alanbrea eta loreak– prest euki behar da. Paluak zuhaixketatik hartuten dira; punta atera eta alanbrea jartzen jake. Beste alde batetik, kurkubia hartu eta zatiak egiten dira. Bola-itxura emon eta alanbraz lotuten dira palura. Paluak ilaran sartuten dira uztaian. Uztai bakotxean bost-sei lerro jartzen dira. “Gaur egun, uztaiak eginda salduten dabez, baina antxina geuk egin behar izaten genduzan, bedarra edota garoa erabiltza. Uztaiak nekostaren hostoakaz apainduten dira”.

Krisantemoak, barriz, zuzenean lotzen dira uztaira, kordel baten bidez. Koroa baxuak egiteko teknika bera erabiltzen dabe.

artisans-lana egiten dogu eta lan hori errentagarria izateko, koroa bakotxak balio dauana baino lau bider gehiago balio beharko leuke.

Halanda guzti be, kurkubi eta krisantemoakaz lan egiten jarraitzeko asmoa dozue...

Bai, beste lan mota batzuk egiteko erabiliko doguz. Nahiz eta batzuk kurkubiak hildakoekin lotu, oso lore polita eta berezia da eta hemendik eta gitxira modan jarriko dala uste dogu, antzeko lorerik ez dagoalako. Izatez, barietate batzuk ekarten hasi dira Holandatik.



David Goliaten aurka

Abuztuaren 15etik irailaren 11ra bitartean, sei gaztek osatutako euskal brigadak Palestina bisitatu zuen, Askapena erakundeak gonbidatuta. Lezamako Igor Urrutikoetxea izan zen brigadista horien artean. Taldeak hiru helburu zituen: Palestinako egoera ezagutzea, harreman iraunkorra sortzea Euskal Herriaren eta bertako erakundeen artean eta Euskal Herriko egoera palestinarrei ezagutaraztea.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Euskal Brigadistak



Nekazari baten eta semearen hileta Nablusen

Zaila da Palestinan sartzea?

Talde bi egin genituen: gutariko hiru Jordaniatik sartu ziren, eta beste hirurok Tel Avivetik. Horrela erabaki genuen, Tel Avivetiko aireportutik sartzea konplikatuagoa delako, izan ere galdeketa eta kontrol oso zorrotzak egiten dituzte. Eta paradoxiakoa bada, guk ez genuen arazorik izan, baina beste taldeak bai Jordaniatik sartzeko. Dena dela, ezin diote edonori sarrera debekatu eta herrian sartu ziren, azkenean. Eta bertatik ateratzeko ere, galdeketa egin eta maletak miatu zizkiguten, baina “turistak” ginenez, trabarik ez.

Zein ibilbide egin zenuten?

Kontaktua bertotik egin genuen eta Tel Avivetik Jerusalemara joan ginen, herri hori abiapuntu genuelako. Cisjordanian sartu eta Ramala, Belen, Hebron, Jerico eta Nablus bisitatu genituen. Bertatik Negev basamortura eta, horren ondoren, Israel estatuko iparraldera, Nazaret eta Galileara hain zuzen ere. Bidaia Golaneko Gainetan bukatu genuen.

Zer nabarmenduko zenuke bertan ikusitako egoeratik?

Harresia eta *check pointak* (kontrol puntuak). Harresiak Gaza Israeletik banatzen du eta Cisjordanian ere altxatzen dabilta; are gehiago, palestinarrek palestinarrengandik banantzen ditu. Harresiaren alde batetik bestera joateko kontrol puntuetatik pasatu behar da eta puntu horiek 6 kilometroro daude. Ondorioz, leku batetik bestera joateko jendeak 500 metro egin behar bazuen lehen 6 kilometro egin behar du orain. Eta Israelgo polizia pasatzen ez



Ezkerraldean, Yasser Arafaten hilobia. Palestinak independentzia lortzen duenean, Jerusalem eraingo dute. Eskuinaldean, Palestinako militarrekin, Igor ukabila jasota

uztea gerta daiteke, gainera. Familiek elkar ikusi barik luze ematea eragiten du horrek, baita askok lana galtzea ere.

Beste alde batetik, *check point*etatik ere pasatu behar da herri batetik bestera joateko. Adibidez, Ramalatik Belenera bidaian kontrol puntu bi gainditu behar izan genituen. Eta horretan ere polizia israeldarrak palestinarek sarrera debekatzea gerta daiteke. Kontuan hartu behar da egoera horretan dagoen Palestina historikoak –gaur egungo Israel estatua, Gaza eta Cisjordania- 27.000 km² dituela.

Horrek zaila egiten du egunerokotasuna...

Ezagutu genuen mediku batek, adibidez, etxetik 15 kilometrora dagoen ospitale batean egiten du lan eta ibilbide hori egiteko egunero 4 ordu ematen ditu kotxez. Gatazka areagotzen denean, *check point* horiek guztiz ixten dituzte eta jendea ezin da ez lanera joan, ez ospitalera... Horrela, bada, bigarren Intifada izan zenean, mediku horrek urtebetea eman zuen ospitaletik atera ezinik. Emakume askok ere kalean erditu behar izaten dute, ospitalera ezin direlako ailegatu; eta askok galdu egiten

dituzte haurrak.

Neurri horiek aparheid egoera baten isla da dira eta palestinarek esaten duten bezala, hil baino bizitza ezinezkoa egin nahi die Israelek euren lurraldea lortzeko. Datuei erreparatzen badiegu, 1940. urtean populazioaren %10 judutarra zen eta 48ko gerraren ondorioz, ia palestinarrak guztiak Gaza eta Cisjordaniara eraman ziren. Palestinan 4 milioi palestinarrak bizi dira gaur egun; Palestinatik kanpo, 6 milioi.

Zein da egoera ekonomikoa?

Sektorerik nagusia nekazaritza da; gehienak olibondoetatik bizi dira. Baina Israeleko gobernuak milaka lurralde desjabetu ditu azken urteotan, harresia zein koloniak eraikitzeke. Oso industria gutxi dago eta Israelek hainbat fabrika suntsitu zituen, gainera, azken Intifadaren ostean. Egoera normalizatu batean Belen eta Jerusalem oso herri erakargarriak izango ziren turistentzat; hala ere, geu ginen turista bakarrak Belenen... Ekonomikoki ere Palestina itotzeko asmoa dagoela sumatzen da. Populazioaren %45a langabezian dago.

Eta gatazka armatuari dagokionez?

Bertako jendearen esanetan, nahiko momentu lasaia egon ginen; hala ere, hiru egoera kritiko bizi genituen. Lehenengoa, Bilinen herria: harresiaren aurkako manifestazio batean parte hartu genuen eta protesta amaitu ondoren, gasak bota zituzten. Indarrak galdu eta lurrera bat-batean jausten zara gas horiek arnastuta. Bertan umeak zeuden, adinekoak, gazteak... Bigarrena, Jerusalem: alde zaharreko sarrera arratsaldeko 8etan itxi eta hiru orduan izan zuten horrela. Jendea pilatzen zen eta hiru aldiz tiroka ibili zen polizia. Gazte bi zauritu eta anbulantziak ordu eta erdi eman zuen ailegatzeko; ospitalea minutu bira zegoen. Eta hirugarrena, Nablus ondoan: nekazari bat eta semea hil zituzten gauez; manifestazioa eta hiletak hurrengo egunean egin ziren.

Arrisku egoeran ikusi zenuten zuen burua?

Bilinen eta Jerusalem bizi izandako momentuak nahiko kritikoak izan baziren ere, bertako jendeak ahaleginak egiten zituen gu arriskutik kanpo gelditzeko. Beste alde batetik, Israelgo soldaduek leu-

Gatazkaren gakoak

–**1897:** Munduko I. Sionista Kongresua. “Judu-herriaren etxea” Palestinan sortzea proposatu zen. Juduak agindutako lurraldera emigratzen hasi ziren.

–**1917:** Balfour Deklarazioa. Erresuma Batuak sionismoaren asmoa onartu zuen. Palestinan 600.000 biztanle zeuden; 60.000 juduak ziren. II. Mundu Gerrak juduak bertara emigratzera behartu zituen.

–**1947:** Nazio Batuak Palestina erdibitza proposatu zuen. Judu-herriari lurraldeko %53a emango zitzaion; palestinarrei %47a. Populazioaren %70a palestinarra zen momentu hartan. Palestinarrek egitasmoa ukatu eta sionistak lurrak indarrez anexionatzen hasi ziren.

–**1948:** Israel estatua sortu zen.

–**1949:** Armistizio-akordioak. Palestina-ko lurraldearen %80a israeldarren esku-

etan zegoen; 750.000 errefuxiatu palestinar.

–**1950:** Israelek lege bi onartu zituen. Lehenengoaren bidez, guda garaian alde egin zuten palestinarren lurrak Israel estatua eskuetan gelditzen ziren; bigarrenak Israelen finkatzeko eskubidea ematen zion judutar guztiei.

–**1967:** Sei Egunetako Gerra. Israelek Gaza, Cisjordania, Egiptoko Sinai eta Siriako Golanean Gainak anexionatu zituen. NBEko ebazpen batek bertatik alde egitara behartu zuen, baina hala ere ez zuen bete eta koloniak sortzen hasi zen.

–**1987:** I. Intifada

–**1993:** Osloko akordioak. Intifadaren amaiera, Israel estatua aintzat hartu eta Palestinar Aginte Nazionala sortu zen.

–**2000:** Bake-biderantz aurre-pausurik ez, eta II. Intifada hasi zen.

nago jokatzeko zuten manifestazioetan atzerritarrak zeudela ikusiz gero. Eta gure presentziak babesten zituen apur bat palestinarrek. Anekdotak bezala Jerusalem gertatutakoa kontatu dezaket: lehen aipatutako istiluak sortu zirenean soldadu bat egoera antolatzen hasi zen, non kokatu behar genuen esanez. Gutaz ez kezkatu eta gazteei laguntzeko esan nion; gazte horiek berdin ematen zizkiotela eta bere eginkizuna gu arriskutik kanpo egotea zela erantzun zidan berak.

Bertako egoerak badu zerikusirik hedabideek ezagutarazten digutenarekin?

Ez eta Gaza adibide argia da: lurraldea uztea bake-biderako urrats bezala saldu digute, baina Sharonen birkokatze estrategikoa izan da, izan ere kolonoak hortik atera arren Cisjordanian birkokatu dira. Horrezaz gainera, ur baliabideek, aireak eta itsasoak israeldarren kontrolpean jarraitzen dute eta palestinarrek ez dute baliabide nahikorik euren buruaren jabe izateko. Israelek ez ditu Nazio Batuen (NBE) hainbat ebazpen betetzen eta ez zaio ezer aurpegiarazten. Beste herri bat izango bazen –Siria edo Kuba, esate baterako– askoz informazio zabalagoa izango genuke.

Palestinarrak erakundeekin harremanetan jartzea zenuten helburuetariko bat...

Bai, eta hainbat bilera izan genituen harresiaren aurkako elkarte batekin, palestinar alderdi politiko batzuekin eta Hamaseko jendearekin, esate baterako. Palestinako kartzela baten dauden buruzagi preso politiko batzuk bisitatzeko aukera ere izan genuen.

Zein da preso horien egoera?

Israelgo kartzelatan, 8.000 palestinar preso politiko daude eta horietatik 120 emakumezkoak dira eta 500 adingabeak.

“Palestinako sektore zabalenek eta eskuindarrek estatu laiko bakarria sortzea proposatzen dute gatazka konpontzeko”

Torturak izaten dira ia atxiloteta guztietan eta emakumezkoen kasuan askoz gogorragoak dira. Preso batzuk kargu zehatzik gabe atxilotzen dituzte. Horri atxilotze administratiboa deitzen zaio eta 6 hilabetero berritzen da; batzuek 8 urte daramatzate egoera horretan. Kartzelan denbora gehien daraman presoak 28 urte daramatza. Beste alde batetik, epaiketak egun batetik bestera egiten dira, inongo garan-

*“Gatazka lurraldea uztea
bake-biderako urrats
bezala saldu digute,
baina Sharonen
birkokatze estrategikoa
izan da, izan ere bertako
kolonoak Cisjordanian
birkokatu dira”*

tia juridiko barik.

Zer entzuten da palestinarren artean?

Lehenengo eta behin, herrialde arabiarrek atzerritarrekiko duten errespetua eta harrera ona azpimarratu nahiko nuke komunikabideek helarazten diguten kontrakoak. Eta kanpoko laguntza politikorik ez jasotzea aurpegiarazten diete munduko erakundeei. Testuinguru horretan, Europa eta Amerikako Estatu Batuak (AEB) erreferentetzat ez izateak ez gaitu harritu behar. Lortu beharrekoa gainontzeko estatu arabiarren laguntzarekin lortuko dutela diote.

Palestinarrak laguntza politikoa eskatzen dute, gatazka errotik konpontzeko. Batzuek estatu bi –Gaza eta Cisjordanian osatutako Palestina estatua eta gaur egungo Israel estatua– sortzea proposatzen dute konponbide moduan; sektore zabalenak eta eskuindarrak, berriz, estatu laiko bakarria sortzearen alde daude. Estatu horretan, judutarrek eta palestinarrek eskubide berberak izango zituzten maila guztietan, eta 1948. urteko gerratik hona alde egin behar izan duten palestinar guztiek euren lurraldera bueltatzeko eskubidea edukiko zuten, nahi izanez gero. Israelek ez du azken puntu hori onartzen. Nire ustez, hori izango zen irtenbiderik



Harresiaren aurkako manifestazioa Bilinen. Protesta amaitu ondoren, gasak bota zituzten

egokiena eta Europa Batasu-nak (EB) zein AEBk Israel bakerako urratsak ematera derrigortu beharko lukete.

Zer deritzozu munduko herririk indartsuenen jarrerari?

Gatazka erlijiosoa moduan aurkeztu digutena gatazka politikoa da. Israel estatua 1948. urtean sortu zuen, AEBk eta Erresuma Batuak oniritzia emanda eta juduen holokaustoaren ordaina zela erabili zen aitzakiatzat. Baina egia esan, halako jendarme geopolitikoa Ekialde Hurbilean izatea komeni zaie AEBri zein EBri, herrialde arabiarrek kontrolpean edukitzeko tresna delako. Eta herrialde arabiar horiek petrolio-baliabideak dituztela hartu behar da kontuan. Horrezaz gainera, AEBko ekonomiaren zati handi bat juduen eskuetan dago eta askok bat egiten dute Israel estatu sionistarekin. Beraz, ez da kasualitatea Israelek diru-laguntzak jasotzea AEBtik.



Ezkerraldean, pintaketak harresian. Eskuinaldean, kartela: “pasatzen den edonor bizia galtzeko arriskuan dago” (ingelesez); “pasatzen den edonori tiro egingo zaio” (hebreeraz eta arabieraz)



Nazio Batuen ebazpenak betetzera behartu behar zaio Israeli: Gazatik eta Cisjordaniatik alde egitea, koloniak desgitea, harresia suntsitzea giza-eskubideen aurkakoa delako, atxilotuekiko biolentzi moderatua eta psikologikoa erabiltzea aisatzten duen legea indargabetzea eta abar luzea. Horrela, negoziazio-prozesuari ekiteko modua legoke eta palestinarrek ere

ordezkapena izango likete. Eta bete ezean, neurriak hartu beharko lirateke bere kontra.

Badute palestinarrek gatazka bukatzeko itxaropenik?

Badakite epe laburrean zaila izango dena eta oso eszeptikoak dira, munduak bizkarrara eman eta Israel oso estatu boteretsua dela ikusita. David eta Goliaten arteko



Hebroneko alde zaharra: kolono israeldarrak goiko pisuetan bizi dira; palestinarrek negozioak dituzte behean. Israeldarrek zarama-eta botatzen diete

“Israel bezalako jendarme geopolitikoa Ekialde Hurbilean izatea komeni zaie AEBri zein EBri, herrialde arabiarrek kontrolpean edukitzeko”

borroka da. Hala ere, ez daude euren lurraldetik alde egiteko prest, eurena delako eta inork ezin dituelako bertatik alde egitera behartu; hil egin beharko dituzte. Laurogei urteko emakume batek esandako hitzak azpimarratuko nituzke: “Seme bi eman dizkiot herriari eta behar izanez gero, beste bostak emango nizkioke, baita nire bizitza ere”.

IX. Euskeraren Eguna, Txorierrin

Abenduaren 3an Euskeraren Nazioarteko Eguna ospatuko da eta Txorierrin be hainbat ekitaldi antolatu dira hilaren 1tik 3ra bitartean. Aurtengo edizinoa Sondikan izango da eta Lurdes Lasuen Mankomunitateko Euskera Zerbitzuko teknikariak azalpenak emon deuskuz.

Euskera alkarteek ez ezik, gainontzeko beste alkarte guztiek be euskera erabiltzea askoz aberatsagoa izango zan, teknikariaren ustetan



Euskera Eguna Larrabetzun egitekoa zan aurtan, baina Sondikan ospatuko da...

Bai, Larrabetzuri zegokion, baina eguraldiaren menpe gagoz eta leku estali bat bilatu behar genduan ekitaldiak egiteko. Bertako frontoia obretan dago eta ezin izan deusie ziurtatu egun horretarako amaituta egongo diranik. Beraz, Sondikan egitea erabaki dogu; Larrabetzun datorren urtean izango da.

Zertan oinarritu zarie aurtengo egitaraua egiterakon?

Aurreko edizinoetan era ezbardinetako ekintzak antolatzen saiatu gara, baina umeentzako ekitaldiak arrakastatsuak badira be, nagusiei zuzendutakoetan oso jentegitxik parte hartuten ebala ikusi genduan. Ondorioz, ekitaldi gitxiago, baina era-

kargarriagoak antolatzea pentsatu dogu. Horrela, bada, Politeknika eta Institutuko gazteentzako antzerkia izango da eta eskolletako umeek zirko eta eskulan tailerrak eukiko dabez. Horrezaz ganera, talo eta txalaparta tailerrak egongo dira nagusiei zein umeei zuzenduta eta, beste alde batetik, Mikel Urdangarinen kontzertua ekitaldirik indartsuena izan daitekeala uste dogu.

Helburu berezirik, aurtan?

Aurreko urteetako helburu bera da: euskera esparru guztietara zabaltea. Badakigu tristeza dala holako egunak antolatu behar izatea, euskaldunok hemen garala eta euskeraz egin behar dala errebindikatzeko... Beno, Txorierrin ekitaldi asko euskeraz egiten dira, zorionez, eta Mankomunitateak be parte hartu nahi dau, Euskera Eguna berton

antolatuz.

Egon, badago euskera alkarteak Sondikan, baina ez dabil, antza. Alkarte hori barrabiatu edota besteren bat sortzeko beharrik?

Edozein herritan euskera alkarteak egotea beti da interesgarria, eta euskera alkarteak dagoan herrien mugimenduari erreparatu baino ez jako egin behar horrezaz jabetzeko. Eta euskera alkarteen beharra? Bai, baina askoz aberatsagoa izango litzateke gantontzeko beste alkarte guztiek be euskerea erabiliko balebe, nire ustez. Txorierriko taldeei euskerazko itzulpen-zerbitzua eskaini jake Mankomunitatetik eta, egia esan, oso gitxik erantzun dabe... Are gehiago, gaztelania hutsean egin beharrean, zergatik ez erakusketak eta hitzaldiak, esate baterako, euskeraz be antolatzea, aukerarik izan ezker? Baina alkarteek ez dabe horretarako mentalitatea... Mankomunitateko Euskera Zerbitzua prest dago laguntza hori emoteko.

1991. urtean bildutako datuen arabera, Txorierrin 16.300 biztanle egoan eta horreen %42,37 euskalduna zan. Gaur egungo egoera antzekoa dala esan daiteke...

Umeakaz lan egin behar dogu, duda barik. Eskolea lan handia egiten dabil behar horretan, baina ume gehienek gaztelaniaz egiten dabe eskolatik kanpo, gurasoak erdaldunak diralako eta euskerea klasean zein irakasleakaz egiteko hizkuntza dala pentsatzen dabelako. Gazte zein umeentzako gune egokiak bilatu beharko litzatekez, euskeraz heziten badoguz errazagoa izango dalako hizkuntza mantentzea. Eta gurasoakaz be lan egin behar da —eta horretan gabilz—, oso erreferente inportantea diralako umeentzat. Beste alde batetik, Txorierrin gero eta etorkin gehiago dago eta horreekaz be ahalegin handia egin beharko dogu.

Zein izan da euskerearen bilakaera azken urte honeetan?

Zaila da esatea, herrialde bakotzak errealtate ezbardina daualako eta Txorierriko biztanle-kopurua handitu dalako. Halanda be, baikorra naz eta euskaldun kopuruak gora egin dauala esango neuke, izan be 16 urtetik beherakoek euskara jakin badakiela suposatzen da. Erabilerea beste kontua da: oso euskera gitxi entzuten da kalean eta gogor lan egin beharko dogu hori aldatzeko.

Golfa, gaur egungo kirola

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Ana Santos

Golfa masa-kirol bihurtzen ari da eta datuei erreparatu baino ez da egin behar horrezaz jabetzeko: Euskadin 16.000 lizentzia atera dira. Artxandako Golf Kluba duela urtebete inauguratu eta 1.100 bazkide ditu gaur egun. Julio Tejero klubeko gerentearekin eta Lucia Santos eskolako zuzendariarekin izan gara solasean fenomeno horren gainean.

Zein da klubeko ardatzik nagusia?

Golfa Euskadin bultzatzea, izan ere kirol horri dagokionez oso atzeratuta gaude, beste probintzia batzuekin alderatuta. Zugaztietako Kluba zein gurea irekitzea oso aurrerapauso inportantea izan da, gure ustez. Zugaztietakoa publikoa da eta inoiz golf-palurik hartu ez duten hainbat laguni hurbildu zaie kirola. Gurea, berriz, pribatua da, baina badauka berezitasuna Bizkaiko beste klubekin konparatuta: eskola jende guztiarentzat zabalik dago. Hau da, kluba bazkideei zuzenduta egon arren, nahi duen edonor eskolaraino hurbildu eta kirola praktika dezake, sarrera ordaindu barik.

Bizkaian lau golf klub daude, konpetentzia handia?

Ez, eta uste dugu guztiak beharrezkoak direla. Are gehiago, hamar urteren buruan golf zelai gehiago eraikiko direla pentsatzen dugu. Atera kontuak: Bizkaian 16.000 pertsona federatuta daude gaur egun, lau golf zelai ditugu eta egunean 100 lagunek,



Bederatzi zuloko zelaiak 2.017 metro ditu; hamazortzi-koak 6.400

gehienez jota, praktika dezakete kirol hori... Zugaztietan, adibidez, 3.000 abonatu daude eta ezin dira aritu... Beraz, demanda kontuan hartzen badugu, golf zelai gehiago egitea guztiz beharrezkoa da

“Demanda kontuan hartzen badugu, golf zelai gehiago egitea guztiz beharrezkoa da”

eta Bizkaiko Foru Aldundiak bete-betean asmatu zuen Zugaztietakoa egiterakoan, gure iritziz.

Etorkizun oparoa iragartzen diozue, beraz...

Bai, Estatuan hirugarren kirola da, futbol eta saskibaloia ostean, eta ziur gaude denbora gutxi barru bigarren postua lortuko duena.

Kirol elitista den ustea nagusia da...

Baina topiko hutsa da hori. Duela 20 urte gauza bera esan zen eskiari buruz, eta gaur egun jenderik gehiena eskiatzera joaten da. Golfa oso kirol ezezaguna da oraindik; hala ere, jendea praktikatzera animatzen

hasi dela ematen du. Oso kirol erlaxagarria da, kontzentrazio handia exijitzen duena, eguneroko arazoak baztertzen laguntzen dizuna. Era berean, edozein adinarekin praktika daiteke, 6 urterekin zein 86 urterekin... Seme-alaba txikienekin jolastu ahal duzu, baita zure bikotearekin edota gurasoekin ere. Eta profesionalekin batera aritzeko aukera ematen dizu torneotan; aukera hori ez dago beste kiroletan. Adibidez, abenduan txapelketa bat antolatuko dugu eta profesional batek eta hiru amateurrek osatuko dute gure taldea... Eta ingurua! Golfa inguru paregabeetan praktikatzen da. Kirol honetako abantailak kontaezinak dira, beraz.

Klubeko instalazioei buruz hitz egingo dugu apur bat.

Duela urtebetea bederatzi zuloko zelaia inauguratu zen eta hamazortzi zulokoa egiten gabilta; datorren ekainerako egongo da prest. Golf eskola ere badago eta Estatuko bigarren onenatzat jotzen dugu. Etorkizunari begira, igeritokia eta padel-instalazioak egiteko asmoa dugu.

“Gurea Euskadiko lehenengo golf eskola da”

Zenbat metro ditu zelai bakoitzak? Nola ureztatzen da hainbeste belar?

Bederatzi zuloko zelaiak 2.017 metro ditu, eta hamazortzikoak 6.400. Belarra berezia da, izan ere tokian tokiko klima kontuan hartuta mota bateko edo besteko belarra jartzen da. Eta ureztatzeari dagokionez, satelitearen bidez egiten da. Sateliteak kaleek ura noiz behar duten antzeman eta agindua ematen dio ureztatze-sistemari. Sistemak martxan jartzen ditu ihinztigailuak. Edota beharrezkoa izanez gero, zelaiaren arduradunak ureztatze-sistema

Umeak, etorkizuna

Erronkarik, datozen urteei begira?

Bere garaian, Jose M^a Olazabalekin Gipuzkoan gertatu zen moduan, Bizkaian ere golf-figuraren bat izatea ondo legoke, kirol hori bultzatu eta zale gehiago erakartzeko. Umeekin lan egin behar dugu eta hori da, hain zuzen ere,



Daniel Innenarity,
klubeko golf-
jokalaririk gazte-
na: 3 urte ditu

eskolako helbururik nagusia: txikienak golfera hurbildu eta jokalaria bikainak hezitzea.

Gailentzen den umerik dago?

Bai, eskolan hiru urteko mutiko bat dago eta hura golfean aritzen ikustea zoragarria da, benetan. Horrezaz gainera, oso onak diren zortzi eta hamaika urteren arteko mutiltxo batzuk ditugu, baita ahizpa bi ere. Golf jokalaria ona izatea erreza da, baina golf-figura bihurtzeko ahalegin handia egin behar da. Eta lan horretan gurasoen zein irakaslearen zeregina ezinbestekoa da.

Ikastaro berezirik eskaintzen duzue, umeei zuzenduta?

Larrabetzuko umeei doako ikastaroa eskaini genien, baina lau ume baino ez ziren etorri. Aurten, berriz, ume gehiago animatu eta 15ek eman dute izena. Izan ere, kirola ikasten duten bitartean primeran pasatzen dute berton. Beste herrialdeetako udalei ere ikastaro bereziak eskaini diegu eta erantzuna oso ona izan da. Golfa ahalik eta ume gehieni hurbiltzea dugu helburu eta hori lortzeko udal guztiekin batera lanean aritzeko prest gaude, baita Txorierrikoekin ere.

aktibatzen du. Berton dugun klima kontuan hartuta, ur-arazorik ez.

Zer konta diezagukezue eskolari buruz?

Golfa oso kirol erraza da ikasteko, baina oso zaila ondo jokatzeko eta irakaslearen beharra ezinbestekoa da horretan. Gurea Euskadiko lehenengo golf eskola da eta hastapen zein hobetze-eskolak ematen ditugu. Bederatzi irakasle gara eta ehun bat ikasle ditugu. Aurten iaz baino jende gehiagok eman du izena eskolan eta 10 talde gehiago egin behar izan ditugu. Beste alde batetik, eskolako instalazioak erabat

argizatuta daude eta neguan ez dago ikusgaitasun-arazorik. Eskola egunero dago zabalik, goizeko 9tik gaueko 9ak arte.

Urtebetea pasatu ondoren, iguripenak bete dituzue?

Bai. Bizkaiko Federazioaren datuak eskuan hartuta, bagenekien gutxi gorabehera zenbat bazkide eduki genitzakeen. Halaber, nahiz eta federatuta ez egon, jende asko golfean aritzen da eta erantzuna oso ona izango zena ziur geunden. Faltan dugun gauza bakarra golfa mundu guztiari hurbiltzea da.

Urakanak harrapatuak

Stan urakanak Erdialdeko Amerikako hainbat lurralde suntsitu zituen urrian. Guatemalan, adibidez, 3.000 lagun baino gehiago hil ziren eta 250.000 inguru kalte-tuta geratu ziren. Nora Artetxe lezamarrak eta Txotxe Sorarrain zamudioztarrak bertatik bertara ikusi zuten hondamendia.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Txote eta Nora

Urakanak harrapatu zintuzten, ekaitz tropikalaren itxura hartuta. Noiz konturatu zineten arriskuan zeundetela?

Irailaren 14an Guatemalara joan ginen oporrak pasatzeko, eta urakana urriaren 4an heldu zen Erdialdeko Amerikara. San Marcos La Laguna herrian geunden eta bagenekien urakana El Salvador aldetik zetorrela, baina jendea lasai ibiltzen zen. Igandean euria hasi zuen, baina normaltzat hartu genuen. Martitzenean argindarra joan zen. Horrezaz gainera, erreka pixkanaka-pixkanaka handituz zihoan eta aurrean zuen guztia eroaten zuen. Erreka hori mendian sortu eta Atitlan lakura jotzen du. Zenbat euri bota zuen konturatzeko, datu hauek emango dizkizuegu: Atitlan lakuak 127 kilometro koadrokoa da eta urek 320 metroko sakonera dute; bada euriaren ondorioz, ia metro bat egin zuen gora.

Kanpoko berriak jasotzen hasiko zineten...

Alderdi hartan herri batetik bestera joateko, txalupa erabili behar da, lakuan zehar. Esan ziguten ezin zela heldu herri nagusira (Panajachel). Jendearen aurpegian larritasuna nabaritu eta arriskuaz jabetu ginen orduan. Lurjausiak hasi ziren eta adi egoteko agindu ziguten, edozein momentutan hoteletik alde egin beharko genukeela. Eta halaxe izan zen. Goizaldeko 03:30ean kalea irten behar izan genuen. Egoera ikaragarriarekin egin genuen topo: iluntasuna, jendea korrika kafe-sailen artetik, bidezidorretatik, noraezean, negar eginez...

Non hartu zenuten babeslekuak?

Eliza batean. Bertan 60 lagun inguru elkar-tu ginen. Egoera onartzea kostatu zitzaigun, baina ezin ginen ezer egin gabe egon; aterpea atondu behar zen. Bertakoek baze-kiten ez zutena kanpoko laguntzarik izango, eta berehala hasi ziren gauzak antolatzen. Guk ahal izan genuen guztietan



San Marcos La Laguna herrian harrapatu zituen urakanak Nora eta Txotxe

*“Esan ziguten ez zegoela
Panajachelera heltzerik.
Jendearen aurpegian
larritasuna nabaritu
eta arriskuaz jabetu
ginen orduan”*

lagundu genien. Eskerrak haiei, bestela... Argitu zuenean janari bila irten ginen. Elizan hiru egun eman genituen: argindarririk gabe, irratarik gabe, euriaren soinua entzuten... Sakelako telefono bi baino ez genituen eta horiek bateria barik geldituzkeekin edozein momentutan. Egoera ez zen batere segurua, eta zaintzan

egon behar izaten genuen gauez; elizaren aurreko eskailerak behera jausi ziren eta linternekin ibili behar izaten genien. Gainera, bazen beste arriskua: lapurretak...

Isolatuta geunden; kanpoko berririk ez, eta jasotzen genituenak ez ziren batere onak: herritik bi kilometrora zegoen herrian 1.400 hildako izan ziren; Guatemalako beste herrialde batean tsunami antzeko bat altxatu zen eta gerta zitekeen berrirori ere altxatzea.

Okerrena pentsatu zenuten?


Lehenengo gauean, bai. Baina eguraldia inoiz baretu beharko zuela pentsatzen dugu. Ostegunean zirimiri antzeko bat egin zuen; hala ere, herrian genuen eguraldiak ez gintuen hainbeste kezkatzen, mendietan zegoenak baizik. Izan ere, zonalde hori oso menditsua eta aldapatsua da, eta

mendi aldean eurite handiak izanez gero, ura herriraino helduko zen, harriak-eta ekarriz.

Iluntasuna da benetan beldurtzen zaitue-na: ez dakizu nondik ibili behar duzun... Eta halako egoerak paranoia txiki bat sor-tzen du zugar: elizako zerbait eroriko da, janaria bukatuko zaigu...

Kanpoko laguntzarik ez zenuten jaso, beraz...

Baina bertako jendeak ez dauka batere konfiantzarik inorengan ere: ez Gober-



Bertako erreka handitu eta aurrean
zuen guztia eroaten zuen

nuan, ez instituzioetan... Badakite ahulak direna eta eurek atera behar dutena euren burua aurrera. Eta euren jarrera horri esker, geuk ere aurrera egin genuen.

Beste alde batetik, Guatemalako Gobernuak ez du baliabiderik honelako hondamen-diei aurre egiteko: helikopterorik gehienak familia aberatsenak dira eta euren pentzu-ra egon behar da, erabili ahal izateko. Hala eta guztiz ere, lehenengo egunetan lainotza handia zabaldu zen eta helikopteroak ezin izango ziren herrietara heldu. Lurreko bide bakarra ere itxita zegoen eta ejertzitoak ezin izan zuen bizigairik eraman. Gauzak baretu zirenean hasi zen inguruko herrieta-tik laguntza heltzen, helikoptero eta txalu-pa batzuk ikusi ziren...

Nola egin zenuten alde handik?

Enbaxadarekin harremanetan jarri ginen sakelako telefono batekin, eta ostiralean ontziralekuan egoteko esan ziguten, txalu-pak ibiltzen hasiko zirela. Panajachalera txalupaz joan ginen, eta bertatik Guatemala Cityra emakume baten helikop-tereoan. Guatemalatik Costa Ricara eta ber-tan Barajaserako hegazkina hartu genuen.

Halako egoera muturreko batek jendea elkartzen du...

Bai, zuk bertokoen babesa behar duzu eta eurek ere zurea behar dute. Eta alde egiten duzuenean, “Nola egingo dute aurrera? Geldituko nintzateke laguntzen... Baina alde egin nahi dut” pentsatzen duzu.

*“Guatemalako gobernuak
ez du baliabiderik
honelako hondamendiei
aurre egiteko:
helikopterorik gehienak
familia aberatsenak dira”*

Bertako jenderik gehienak artoa du bizibi-de, eta urteko arto uzta osoa galdu du. Gainera, halako herriak ez dira egun bate-tik bestera berriro altxatuko, oso baliabide gutxi dituztelako.

Eta etxean egonda, nola ikusten duzue bizi izandako arriskua?

Beste herri batzuetan gertatu zenarekin konparatuta, gurea anekdota hutsa izan da. Baina esperientziatik hurrengo hau ate-ratzen dugu: bertokoek badakite herrialde behartsuak direna eta herrialde behartsuak izaten jarraituko dutena, munduko agen-dako lehentasunen artean ez daudelako. Hala ere, gauzak etorri ahala onartzen dituzte eta nahiz eta dena galdu, eskuzaba-lak dira eta pozik daude, familia ondo dagoela ikusita. Eskerrak eman zizkiguten hainbat aldiz, baina gu gara eurekin zor-re-tan gaudenak. Eta pentsatzen duzu: “Hemen gertatu bazen, zer egingo genuen guk?”.

SU'B Y K'E, Derioko Aeromodelismo taldea

Hasi gura dabenei irakatsi eta laguntzeko prest

Jose Luis Martin taldearen presidenteak denbora asko eskaintzen deutso bere *hobbyari*: lar bere ingurukoen ustez, gitxiegi bere ustez. Sei abioi ditu etxean, batzuk berak eginda. Mundu hau itzel gustatzen jako, ze berak dinoanez, hainbat ofizioen nahasketa da: arotz lanak egurra mozteko, lixatzeko... kimikari lanak kolak egiteko, erregaia prestatzeko... elektronikari lanak baterietan, serboetan, motorrak bobinatzeko orduan... Aerodinamikaz ulertu behar da, proportzioak kalkulatzeko, hegalkargak... Haizeak ezagutu behar dira... Danetarik apur bat. Aurten Zamora eta Orduñako txapelketetan egon da.

Testua: Bestorrene / Argazkiak: SU'B Y K'E



Dozena bat lagun dira taldean; abioei hegaz egitera joateaz ganera, erakusketak eta tailerreko lana egiten dabez, besteak beste

Zenbat urte daroazuez lanean eta zenbat zarie?

Hamaika urte daroaguz, baina klubak hamar urte beteko ditu hurrengo urtean. Orain dozena bat lagun gara, gehienak Derioztarrak, hogeita eta hirurogei urte bitartekoak. Gehiago izan gaitkez, baina ez jaku interesatzen, gureak tailer izaera daukalako, klub hutsa baino gehiago. Aeromodelismo klub arruntak jende piloa dabe, abioiei hegaz eragitera joaten direnak, besterik gabe. Guk beste jarduera mota batzuk egiten doguz: irakatsi, herriko ekintzetan parte hartu, erakusketak prestatu, tailerreko lana... Beste alde batetik, bazkide izateak federatua izatea

“Gureak tailer izaera dau, klub hutsa baino gehiago da”

dakar eta baita aseguru edukitzea be. Ez deusagu inori aseguru barik hegaz eragiten ixten, hamar urte honeetan ez da inoiz ezer pasatu, baina badaezpada.

Zer egiten dozue taldean?

Asteazkenero batzen gara gauzak prestatzeko eta eguraldiak lagunduz gero, hegaz egiteko. Asteburuetan be batzen gara. Abioi txikiak Seminario atzean

*“Ez deutsalagu inori
aseguru barik hegaz
eragiten ixten, hamar
urte honeetan ez da
inoiz ezer pasatu,
baina badaezpada”*

*“Aurten "indoor"
hegaldia egingo
dogu frontoian”*

*“Tailerra be badaukagu
eta abioi batzuk egin
doguz, baten bat
diseinatu be bai”*

hegalدارازten doguz, handiakaz ibiltzeko Orduñara joaten gara, bertako bazkideak be garalako. Eta maiatzean hegaldiaren erakustaldia egiten dogu Seminarioan. Hegaz eragiteaz gain, ikastaroak be emoten doguz, Gabonetako erakusketa estatikoa prestatu... Aurten "indoor" hegaldia egingo dogu frontoi barruan. Abioi txikiak dira, litiozko pilakaz, "depron" edo kortxoz eginak eta 200 gramo besterik pisatzen ez dabenak, leku itxietan hegaz jartzeko ego-kiak.

Zenbat abioi mota dagoz?

Era askotakoak dagoz. Benetako abioien maketak direnak dagoz alde batetik, eta horreek ahalik eta kopiarik zehatzenak izan behar dabe. Gero aeromodelismorako eginda dagozanak, eta honeen barruan,

entrenatzekoak, beladunak, akrobatikoak, helikopteroak, lehen aipatutako "indoor" erakoak... hainbat. Gehienak metanol eta olio nahasketa erabiltzen dabe erregai modura. Gasolinea abioi astunentzat erabiltzen da eta abioi elektrikoak be badagoz.

Eta hasi gura dabenak?

Konturatu gara ikastaroek berez ez dabela afiziorik sortzen. Iaz hamabi lagunek egin eben ikastaroa, klubak jartzen eban dana: abioiak, erregaia, emisoreak... Bi hilabete-ko ikastaro luzea izan zan, baina batek be ez dau jarraitu. Hasteko gogoz datozen banaka batzuk osterat bai: hasierako materiala geuk jarri eta hiru edo lau egunetan hegaz egiten dabe, mundu hau zelangoa dan ikusteko. Gustetan bajakie esango deutsegu zein material erosi behar daben hasteko, non dan merkeagoa... eta eurakaz egoteko konpromisoa hartzen dogu erabiltzen ikasi arte. Horrela lau daukaguz gaur egun.

Garestia da?

Hirurehun euro inguru behar dira hasteko, gero gauza barriak eta hobeak erosi ahala zaharrak saltzen laguntzen dogu. Horrela ez dozu hainbeste gastatu behar. Bestalde, tailerra be badaukagu eta abioi batzuk egin doguz, baten bat diseinatu be bai. Gertatzen dana hau da: etxean normalean jendeak ez dauka lekuri egiteko, zikintzeko, eta erosi egiten da. *Kit* moduan be eros daiteke, gero norberak eraikitzeko.

Asko ikasi behar da? Gatxa da?

Zeoz jakin behar da aerodinamikaz, haizeak kontrolatu... baina ez zara izan behar pilotu profesionala. Hegaz eragiteko orduan maniobrarik gatxena lurra hartzea da, eta airean daukazunean akrobaziak ondo egitea. Dana dala, interesatuta daganari Derioko udalean emongo deustie geure barri, eta pozik erakutsiko deustaguz lehen urratsak. Arazo barik hurbildu daitela!

Hegaztien gripea, alarma piztu egin da

Gripe hau hegaztien gaixotasun infekziosoa da. Birusa oso arin zabaltzen da eta hilkortasun-tasa %100ekoa izatera hel daiteke birusak eraso eta 48 ordura. Hegaztien gripearen lehenengo kasuak Korean, Japonen eta Asiako beste herrialde batzuetan agertu ziren; lagunen lehenengo kasuak ere alde hartan izan ziren.

Hegazti guztien artean oiloek eta indioilarrak izaten dute gaixo hau hartzeko arriskurik gehien. Sintomak hauek izaten dira: gutxiago jaten dute, arrautza gutxiago egiten dute, gorotza zirinago egiten dute eta arnasa nekez hartzen dute. Bestalde, hilkortasuna handitu egiten da. Lagunak kutsatzen badira, gripe arruntaren antzeko sintomak izaten dituzte: sukarra, ezarriko eta buruko mina, ahulezia, sudurre-tako kongestioa...

Hegaztien gripea animalien artean kutsa daiteke, baina gerta daiteke animaliek lagunak kutsatzea ere; horretarako, gizakiek kontaktu zuzena izan behar dute hegazti gaixoekin edo hegazti gaixook sortutako hondakinekin. Hegaztien okela



Testua: Goizeder Uria eta Olatz Unamaunzaga

Sintomak gripe arruntaren antzekoak izan daitezke gizakiengan

edo arrautzak jaten badira, ez dago arriskurik, birusa hil egiten delako 70 gradutan. Gaur-gaurkoz ez da ezagutzen kasu bakar bat ere, gaixoa gizaki batengandik beste batengana igaro denik; horretarako, gripe arruntak eta hegaztien gripeak, biek batera eraso beharko liokete pertsona bati. Hala gertatuko balitz, birusa mutatu egingo litzateke eta gizakien artean zabaltzeko gauza izango litzateke.

Beste alde batetik, hegaztien gripearen aurka ez dago txertorik. Halako txertoak egiteko, gaixoa gizakitik gizakira kutsatzea gertatu behar luke.

Gaixotasunaren aurkako neurriak

Hegaztien Gripearen Aurkako Koordinazio eta Jarraipen batzordea sortu dute Euskal Herriko nekazaritza erakundeek, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, Neiker laborategiak eta Erika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak. Batzordeak neurri hauek hartu ditu:

–Hegazti ustiatagietan kontrol gehiago egiten dira. Alerta nagusiko epea ezarri da 2005eko urriaren 1etik 2006ko martxoaren 31era bitartean; epe horretan, hamarna lagin hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko hegazti-ustiatagietan (1.300 lagin, guztira). Orain arte Neiker laborategiak 80 lagin analizatu ditu eta ez du gaixoarekin aztarrenik aur-

kitu.

–Alerta nagusiko epe honetan, hegazti basatiak kontrolatzeko programa ezarri da, gripea hegazti basatien bitartez zabal daitekeelako. Neiker laborategiak 219 lagin analizatu ditu 2003tik hona, eta kasu bakar bat ere ez du aurkitu. Hala ere, susmagarritzat jotzen diren hegazti guztiak analizatuko dira.

–Debekatu da azoketara hegaztiak eramatea.

–Hegazti migratzaileen zonetatik hurbil dauden ustiatagietan prebentzio-neurri bereziak jarri dira.

–Hegazti basati eta exotikoak ekartzea debekatuko da, ez bada frogatzen ez daudela gaixorik.

Euskal musika, zure sakelako telefonoan



Goazen eta Goiena enpresek smsoinu proiektua abian jarri dute **www.smsoinu.com** helbidean. Web orri horretan sartu, eta Euskal Herriko bakarlariekin edo taldeen kanta sakelako telefonora deskargatzeko aukera izango duzu, baita soinuak, irudiak eta jokoak ere. Horrezaz gainera, eskari orri bat sortu dute eta elkarteek euren abestiak, logoak eta himnoak pertsonalizatu ahal izango dituzte bertan.

Euskal kulturaren presentzia eskasa da sakelako telefonoetan, eta proiektuak hutsune hori betetzea du helburu. Abestiak eta logoak eskuratzeko mezu bakarra bidaltzea nahikoa da (0,90 euro + BEZa). Soinuen kasuan mezu bi (1,80 euro + BEZa) eta jokoen kasuan lau mezu (3,60 euro + BEZa) bidali behar dira.

Euskosare, munduko euskaldunen topagunea

Eusko Ikaskuntzak Euskosare ekimena jarri du martxan **www.euskosare.org** helbidean. Web orria euskal munduko pertsonen eta erakundearen topagune birtuala da eta Euskal Komunitate Globalaren barruan komunikazioa eta lankidetzaren areagotzea du helburu.

Euskosarean euskaldunentzat interesgarria den informazioa ematen dute: albisteak, ikastaroen berri, diasporako euskal erakundearen datuak, abizenen jatorria eta euskal etxeei zuzendutako programak, besteak beste. Web orria euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dago.

143.000 lagunek euskara erabiltzen dute Interneten nabigatzeko

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) irailean plazaratutako txostenean adierazitakoaren arabera, Interneten nabigatzeko euskara erabiltzen duten lagunen portzentaia % 4,8 puntu egin du gora 2005eko bigarren hiruhilekoan. Horrela, bada, 2004. urteko laugarren hiruhilekoan internauten % 15,6k euskaraz egiten zuten eta aurtengo lehen hiruhilekoan % 20,4k. Datuon arabera, ia-ia 143.000 pertsonak erabiltzen dute euskara, Interneten aritzeko. Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 700.000 erabiltzaile egon dira Interneten apiriletik ekainera bitartean.

Software libreari buruzko ikastaroa, on-line

Eusko Ikaskuntzako Asmoz fundazioak eta Udako Euskal Unibertsitateak Software librea. Sistema, sarea, segurtasuna eta web aplikazioak ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa software librearen inguruan birziklatu nahi duten informatikako profesionali zuzenduta dago, baita ezagutza eta praktika sakondu nahi dituztenei ere. On-line izango da eta 2005eko abendutik 2006ko ekainera bitartean emango dute. Izena emateko epea zabalik dago eta plaza mugatuak dira. Argibide gehiago hurrengo web orrialdean:

<http://linux.asmoz.org>



Irlandatik datorren doinua

Urriaren 27an, James Hogan eta Denise Bracken bikotearen doinuaz gozatzeko aukera izan genuen Zamudio dorrean. Lehengo egunean, irlandar hauek euren herrialdeko kantei buruzko ikastaroa eman zien Bertoko elkarteko ikasleei. AIKOR! aldizkaria Hoganekin izan da solasean, eta Bizkaiko Trikiti Elkarteko Gaizka Benguriak itzulpen-lanetan lagundu digu.

Lehenengo eta behin, zerk ekarri zaituzte Euskal Herrira?

Bizkaiko Trikiti Elkarateak eta Euskal Herriko Trikiti Elkarateak Nazioarteko Trikiti Jaialdia antolatu dute Bilbon eta Donostian. Jaialdian parte hartuko genuenez, Bertoko elkartekoek ikastaroa eta kontzertua egiteko aukera eman ziguten. Dena dela, hau ez da Euskal Herrian gauden lehenengo aldia; orain urte batzuk Portugaleteko Folklore Jaialdian izan ginen. Oso gustura gaude bertan.

Eta zelan irten dira ikastaroa eta kontzertua?

Denisek bodharn (panderoa) ikastaroa eman du eta nik Irlandako pieza batzuk irakatsi dizkiet ikasleei, trikitiak lagunduta. Ikasleek oso maila handia dute, baina irakasteko hemengo moduak harritu nau: partitura batzuk banatu, abestiak pare bat aldiz entzun eta denak batera hasten dira

jotzen. Irlandan, berriz, banan-banan hartzen ditugu ikasleak; eurekin lan egin eta prest daudenean, taldean sartzen ditugu. Eta kontzertuari dagokionez, hasieran apur bat urduri geundela aitortu behar dugu, izan ere, entzuleek ez gintuzten eza-gutzen, eta guk hemengo entzuleak ere ez... Baina jendearen erantzuna oso ona izan da eta poz-pozik gaude.

“Euskara eta gaelikoa antzeko egoeran daude”

Parekotasunik dago Irlandako eta Euskal Herriko musiken artean?

Bai, zuen biribilketa edo kalejira gure *jigaren* parekoa da, eta zuen arin-arina, gure reelarena. Polkaren antzekoak ere jotzen ditugu, baina fandangorik ez. Eta desber-

dintasunik nabariena hurrengo hau izango litzateke: abesti bat jotzeko orduan, zuek erritmo berbera mantentzen duzue hasieratik amaiera arte; guk, berriz, lasai hasi eta indarrez jotzen dugu gero...

Duela hamar bat urte, trikitia modan jarri zen Euskal Herrian, baina orain behera egin du, antza. Zein da egoera Irlandan?

Oso antzekoa. Orain hamabost bat urte booma izan zen, behera egin eta hiru urte-tik hona modan jarri da berriz ere.

Musika alde batera utzi eta hizkuntzaz arituko gara orain. Hemen, euskara, eta Irlandan, gaelikoa... Sasoi onean dago zuen hizkuntza?

Euskara eta gaelikoa antzeko egoeran daude. Umeek ikastolan ikasten dute, baina ez dute erabiltzen eskola-orduetatik kanpo. Nagusiok gehiago egiten dugu gaelikoz. Eta zuek euskalkiak badituzue, guk ere baditugu hainbat dialekto.

Gabon-jai xarmangarriak

Eguberria Karibbean ematea edo mahatsak Eiffel dorrean jatea. Ohiturak aldatuz doaz eta gero eta jende gehiagok aprobetxatzen ditu Gabonetako oporrak leku berriak ezagutzeko. Mundua zabala da eta aukera anitz dago.

Uda garaiarekin konparatu ezin bada ere, Gabonek gero eta gailur handiagoak marrazten dituzte bidaia agentzien grafikoetan. Bakardadeak, ohituren aldaketak eta kultura ezberdinak ezagutzeko grinak eragina dute fenomeno horretan. “Jendea leku berezi baten bila etortzen da eta gehienek Europako herriak bisitatu nahiago dituzte. Herri horiek ez daude etxetik oso urrun eta artea, kultura, historia eta Gabonetako ospakizunak uztartzeko aukera ematen diote bisitariari”, azaldu digute Derioko Viajes Barceló bidaia agentziatik.

Paris, Viena, Praga, Herbeherak... “Erroma ere oso polita jartzen dute sasoi horretan; hala ere, ez badugu Eguberria edota Gabon Zaharra ospatu nahi, makina bat alternatiba interesgarri eskaintzen digu hiriak”. Eta oporrei ukitu exotikoa eman nahi izanez gero, Tunez eta Istanbul egoiak izan daitezke. “Beste alde batetik, abenduan ez dago urakanen arriskurik eta Karibea ezin hobea da eguzki eta hondartza bila dabilzanentzat”. Baina elurretan

*“Europak artea, kultura
eta Gabonetako
ospakizunak uztartzeko
aukera ematen
dio bisitariari”*

ibili nahiago badugu, munduko edozein eski-estaziotarako bidaia ere eskaintzen dizkigute agentziek: Pirinioe-tara, Suitzara,... Gainera, elurra ari izango duela ziur egon gaitezke. “Aholkua eman behar izatekotan, Karibea barik Europa bisitatzea gomendatuko genioke bezeroari, izan ere urte osoko estresak oraindik ez du eraginik gudan eta beste turismo mota bat egiteko aprobetxa dezakegu, aktiboagoa... Dena dela, ez ginateke kostaldera joango, eguraldi txarra izan dezakegulako eta ber-

tan ez ditugulako udan dauden zerbitzuak topatuko”.

Gabonetan turismo egiteak abantaila pilo bat ematen digu. Horrela, bada, prezioak merkeagoak dira eta hirietako benetako mugimendua ezagutzeko aukera izan dezakegu, oso turista gutxi daudelako. Bezeroak mimoz zaintzen dituzte eta arteaz eta kulturaz estutasun barik goza dezakegu. “Eta ez dago udako berorik. Gabonak Egipton emateak, piramideak aurrean izanda, badu bere xarma, ezta?”.

Egiptoko piramideetako ikuspegia



LEHIAKETA

**Aurreko
galderaren
erantzuna:**

Txorierri taldea.

Irabazlea:
Jon Gondra.

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Arroza ortuariakaz

Osagaiak (5 laguntzat):

- Kilo erdi arroz
- Kinpula bat
- Berakatz atal bi
- Azanoria bi
- Piper berde bi
- 6 alkatxofa
- 100 g. ider
- Tomate bat
- Oliba orioa

—Gatza

Prestatzeko era:

Ipini kinpulea eta berakatz oriotan. Apur bat egiten danean bota piper berdeak txikituta eta tomatea (gordina, edo egina txorrostada bat). Bigunduten danean bota azanoria tira me-meheak eginda eta arroza. Dana nahastu eta bota litro bat ur baino gehitxoago. Irikiten hasten danean egin gatza eta bota iderrak eta alkatxofak. 15 minutuan irikiten euki eta beste bost bat minutu geldigeldi jalkiten edo erreposetan, tapauta. Eta on egin!



Mari Tere Onaindia

Zigalak, kanelarekin, barazkien eta alkatxofa-kurruskariaren gainean

Osagaiak 4 laguntzat:

- 8 zigala
- 4 alkatxofa
- Kipula bat
- Piper berde bat
- Piper gorri bat
- Kanela-hautsa
- Berakatz txikitua
- Pipermina

Prestatzeko era:

Zigalei burua eta haginak kenduko dizkiegu: alde batetik, haginak egosi eta gorde egingo ditugu; bestetik, buztanei azala kenduko diegu kontu handiz, buztanaren amaierako zatia kendu gabe utzita. Barazkiak juliana erara zatitu eta gorrituko ditugu.

Aretxarte hotela Zamudion



Alkatxofak luzetara zatituko ditugu, lamina ahalik eta finenak eginez. Gatza egin, irinetatik pasatu eta olio oso beroan

frijituko ditugu.

Beste alde batetik, olio apur batean berakatz txikitua eta pipermina jarriko ditugu. Gorritzen hasten direnean, zigala-buztanak bota, apur bat gorritu eta kanela-hautsa zabalduko dugu. Erretilu batean jarri eta labera sartuko ditugu, egiten amaitzeko.

Platera aurkezteko modua:

Plater batean lau alkatxofa-lamina ipiniko ditugu, lore-irudia eginez. Barazki-multzo bat ipiniko dugu gainean, baita zigala bi ere (aspa bat eginez). Zigala-haginak alboan jarriko ditugu, platera apaintzeko.

LIBURUAK

Lezama gure herria.

Zorritzketan Euskara Elkartek argitaratutako CD eta gida-liburua. Txorierriko herri guztiek ikusi, ikasi eta egin beharreko lana.

Azala beltz, zerua urdin.

Afrikako kondairak

Ketzal txoria.

Hego Amerikako kondairak

Bizi behar dugu.

Xanti Zapirain

Skyroom.

Ramuntxo Etxeberri. Donibane Lo-hitzuneko idazle gazteak Bordelen ikasi eban Literatura. Hungarian lan egin eta kooperante ibili zan Filipinetan urte bian. Manilako Syroom jai-alai pilotalekuan kokatu dau eleberri poliziako hau.

Ostadarreko kolore guztiak.

Josu Garcia

MUSIKA

Urrezko kabiak. Buitraker

Garrasia. Asgarth



Lili baten kantorea. P.P. Berzaite

Herri kanta tikiak

Kale artean. Norton club

Txorierriko gabon kanten kontzertuak

DENBORA PASA

LETRAZOPA

A	P	B	I	D	E	G	A	R	R	O	A	U
T	R	U	S	F	G	Y	F	K	R	K	H	O
S	H	T	E	B	S	U	O	Y	E	I	L	M
Ñ	E	D	N	D	R	G	A	J	Y	L	I	S
L	Y	T	H	K	I	P	R	F	H	E	N	J
U	A	B	D	T	H	X	R	K	B	Z	Y	U
I	R	S	X	D	G	Z	O	X	E	A	O	R
M	R	P	J	I	M	X	G	P	L	K	J	X
R	A	R	R	A	Z	T	N	A	K	J	A	O
A	Ñ	G	O	P	H	Y	I	L	O	Z	X	B
I	T	E	U	F	M	P	M	M	N	S	E	I
N	S	R	N	H	O	A	G	Ñ	L	E	O	B
G	A	B	O	N	T	Z	A	F	A	Z	D	S

M	D	D	F	R	U	B	L	E	X	A	A	F
A	E	T	R	I	X	T	Y	T	L	Z	U	M
E	N	P	E	O	O	G	B	S	T	B	E	E
P	D	P	A	T	A	I	S	E	Y	N	Z	U
E	E	R	R	F	G	K	J	K	L	D	Y	A
T	B	A	R	T	A	X	O	R	I	E	X	F
X	R	O	E	H	Y	M	N	H	P	M	A	X
A	S	A	P	G	H	S	J	O	E	R	Z	G
X	B	R	E	I	Z	F	I	U	N	G	H	Ñ
F	A	X	P	H	J	M	K	L	T	K	Ñ	H
U	B	Y	O	Z	K	U	L	N	N	I	M	B
J	T	A	R	E	K	I	T	R	E	P	E	J
D	S	E	Ñ	K	P	J	U	I	G	L	I	D

Aurki itzazu goiko letra-zopan beste 7 txorien izenak*. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Zamudio berbarik berba" liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 42. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. 7 txorien izenak Txorierrin esaten dan erara idatzita.

Euskal herriko d-generazioa

Beste urte bat pasatu da, berrin aldi berrin gaur.

Laneko afaria, Santo Tomas, gabeak, lagunak bezkariak eta gabe zaharra. Eta guztiek daturaz gaitzakeriak, gaitzakeriak, biziak, biziak, biziak...

AAAAARRRRGGHHH... eta asan...
egunak dauka 15 egunetan kontzentratuta!



aritz eta nager
gaur! 05-06-07-08-09-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20

Gogor:

Urtetik hona urte berrin daturaz gaitzakeriak, gaitzakeriak, biziak, biziak, biziak...

Antzerkia eta filmak

Zamudio

–*Niñera a prueba de balas*, abenduaren 4an;
Valiant, abenduaren 11n eta *Heroe a rayas*,
abenduaren 18an. Guztiak, 17:00etan,
dorrean.

Erakusketak

Derio

–Derioko II. Argazki Lehiaketako argaz-
kien erakusketa, Argazki Taldeak antola-
tuta. Abenduaren 17tik urtarrilaren 8ra,
Larrabarri baserrian.

–Aeromodelismoa, Subyke klubak antola-
tuta. Abenduaren 18an, pilotalekuan.

Larrabetzu

–Arau subsidiarioen II. aurrerapena.
Abenduaren 20ra arte, 16:00etatik 20:00e-
tara, Angulei kultur etxean..

Irteerak

Lezama

–Bertsolari Txapelketaren Finala ikusteko
irteera, Udalak eta Zorritzketanek antola-
tua. Abenduaren 18an, BECen.

Loiu

–Baqueiran eskiatzeko irteera, abendua-
ren 16tik 18ra. Izena emateko azken egu-
na: azaroaren 31.

Musika

Derio

–Gabonetako kontzertua, Larrabetzuko
Musika Eskolaren eskutik. Abenduaren
13an, 19:30ean, institutuan.

Lezama

–Txorierri Jaialdi Korala. Abenduaren
16an, 19:30ean, Andra Mari elizan.

Umeentzako ekintzak

Derio

–Amama Pantxikaren altxor ezkutua,
Zenbat Gara taldearen eskutik eta
Tximintxek antolatua. Abenduaren 17an,
19:00etan, institutuan.

Larrabetzu

–Jolasak eta tailerrak, ludotekan. Aben-
duaren 5ean eta 7an, 10:30etik 13:30era.

Bestelakoak

Derio

–Kantuz, Tximintxek antolatua. Bariku-
etan, 19:00etatik 20:00etara, Larrabarri
baserrian.

–‘Derioztarron euskara’ liburuaren aur-
kezpena. Abenduaren 16an, 18:30ean, La-
rrabarri baserrian.

–Dantza agerraldia, Lainomendi eta beste
dantza talde batzuen eskutik. Abenduaren

18an, 12:00etan, kiroldegian.

–Sahararako karabana: azukrea, oliotan
eginiko atuna eta konpresak biltzeko kan-
paina. Abenduaren 20tik urtarrilaren
10era, Udaletxean, gaztelekuan eta
Mafren.

–Gabonetako Bin-
go Berezia. Aben-
duaren 21ean,
19.30ean, Zahar
Etxean.

Lezama

–Liburu Azo-
ka. Abendu-
aren 9tik 16-
ra, liburute-
gian.

Zamudio

–Ikastaroetan izena
emateko epea: aben-
duaren 21era arte.

Larrabetzu

–Aisialdiko ikastaroetan izena emateko
epea. Abenduaren 12tik 15era bitartean.

–*Las mil y una noches* antzezlanaren ikusteko
sarrerak salgai. Abenduaren 14tik 22ra
bitartean.

–Gabon-txartelen II. Lehiaketako sari
banaketa. Abenduaren 16an, 17:30ean,
Anguleri kultur etxean; 18:00etan, Marsel
magoaren emanaldia.

–Larrabetzuko banderaren aurkezpena.
Abenduaren 17an, 11:30ean, plazan.

